

AZPIEGITURAK ▶ TABAKALERA

Udal Liburutegi Zentrala eta Euskal Liburutegi Nagusia jarri nahi ditu Udalak Tabakalera

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Mediateka Digitalaren aldeko apustua egin dute, eta ez omen dute begi onez ikusten proposamena



Tabakalera izango dituen edukia zahazteko lanean ari dira Udala, Aldundia eta Jaurlaritzak. IRALA PEREZ

ION LOPEZ

Tabakalera Udal Liburutegi Zentrala eta Euskal Liburutegi Nagusia bilduko litzuzkeen liburutegi handia jartzea proposatu die Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Tabakalera kultura garaikide guneak izan beharrekoez edukia zahazteko bilerak egin ari dira hiru erakundeak, eta bilera hauetan egin du, hain zuzen ere, Udalak proposamena.

Udalak egindako txostenaren, liburutegi handi batek Ta-

bakalera ekarriko litzuzkeen onurak ageri dira. Alde batetik, liburutegi handi batek gutxienezko erabilizale kopurua bermatuko lioke gune osoari. Bestetik, mailegu sistemak ere bisita ugari izatea ekarriko luke. Liburutegia bateragarria izango litzuzkeen kultura garaikide gune gainerako alderdiekin, txostenaren arabera.

Udalak dioenez, proiektu honek asetu egingo litzuzkeen liburutegi arloan hiru erakundeek dituzten beharrak. Eusko Jaurlaritzak Euskal Liburutegi Nagusia —egitasmo hau zahaztu

gabe dago oraindik— sortzeko asmoa agertu du. Horregatik, Tabakalera Euskal Liburutegi Nagusiaren erdigunea jartzea nahi du Udalak. Era berean, Udalak dioenez, Foru Aldundiak Koldo Mitxelena kulturunea zabaltzeko arazoak ditu eta proiektu hau arazok saihesteko modua izan daiteke. Udal liburutegi sareari dago-kionez, finkatuta dagoela baina Donostiak liburutegi zentral bat falta duela dio Udalak. Udal liburutegi sarearen gune nagusi hau Tabakalera jarri nahi du, hain zuzen ere. Liburu-

tegi handi hau funtsezko osagaia litzuzkeen Tabakalera berriari, eta hiru erakundeen politikak batzea eta sinergiak eta ekonomiak elkartzea izango luke helburu nagusi.

Udalak egitasmoaren zenbait ezaugarri ere zahaztu ditu. Informazioa jasotzeko toki zabala egongo litzuzkeen liburutegian; ikus-entzunezko kultura berriarekin harreman zuzena izango lukeena. Bestalde, Tabakalera jorratuko liratekeen gainontzeko arloekin harreman berezia izango luke; irudiaren eta komunikazioaren munduarekin, batik bat.

Erakundeen iritzia

Tabakalera batzordea osatzen duten beste bi erakundeek ez omen dute begi onez hartu Udalaren proposamena; Udal Liburutegi Zentrala egiteko aitzakia izan daitekeela diote, eta ez dute Tabakalera «kultur etxe handi bat» ipintzea nahi. Bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, bai Eusko Jaurlaritzak Euskal Liburutegi Nagusia egiteko proiektuaren alde azaldu dira; hala ere, esan bezala, proposamena ez dago oraindik zahaztuta. Horrez gainera, oraingo teknologietan esker, Euskal Mediateka Digitala sortzeko eta kultura eduki guztiak sarean lan eginda kudeatzeko modua egon daitekeela uste dute.

LIBURUTEGIAREN ZERBITZUAK ▶

Udalaren ustez, Tabakalera liburutegi handiak ondorengo zerbitzuak izan beharko litzuzke.

INFORMAZIO ETA ERREFERENTZIA ZERBITZUA

Adituak. Mota guztietako fondo eta argitalpenez eta internetarako sarrera egokiaz gain, aditutako langileak ere izan beharko litzuzke liburutegiak; informazioaren bilaketan adituak, alegia.

HEMEROTEKA ZERBITZUA

Argitalpenak. Aldizkari argitarapen eta bertako eta nazioarteko hedabideen bilduma. Zineman, argazkigintza, irudien eta euskararen bereizitutako argitalpenak bilduko lirateke, batez ere.

KONTSULTA ETA MAILEGUA

Zinema arloa. Fondo bibliografikoa, aldizkariak, kartelak, DVDak.

Argazkigintza.

Arte eta plastika arloa.

Komikia. Gazteen artean eskaera handia du arlo honek, baina gaur egun eskaintza urria du.

Musika. CD eta DVD mailegua.

Kultur aniztasuna. Euskarri mota guztietan beste kulturak ezagutzeko mailegu zerbitzua.

INFOTEKA ZERBITZUA

Teknologia berriak. Erabilizaleei internetarako sarrera eta teknologia berrienganako harremana errazteko tresnak.

HAUR LIBURUTEGIA

Haurren gunea. Haurrek toki propioa izan beharko lukete.

HIESA ▶



Hiesaren aurrakako eguna

Atzo, hiesaren aurrakako eguna izan zen. Donostian mahaiak jarri eta kontzentrazioa egin zuten Bulebarrean. Dena dela, festa giroak ere tartea izan zuen. A. USABAGA

MOBILIZAZIOA ▶



18/98 auzia salatu dute

LABek kontzentrazioa egin zuen atzo epaitegi aurrean, 18/98 auzia salatuzko; alderdiei epaieketa geldiarazteko lan egin zezaten eskatu zuten sindikatuak. A. USABAGA

KANPAINA ▶



Organo emate kanpaina

Euskadiko Bihotz eta Birika Transplantatuaren Elkarteak organo emaleak lortzeko kanpaina egin du egunotan; Donostian 100 bat emale lortu dituzte. R. PEREZ